

ERRAMON ASTIBIA

“Errenderi Aba”

(1881-1916)

Idazlanak

Mikel Ugalde

Lehenago Koldobika Jauregi “Jautarkol-en” lanak argitaratu zituen bezala, aurtengo udaberrian Erramon Astibia-renak kaleratu ditu Errenteriako Udalak CD formatoan: Albiste on bat izan da, beraz, euskaldunontzako eta, batez ere, errenteria-rrontzako.

Ezagutzen ez den ondarerik ez omen da behar bezala estimatzen. Nik uste, herritar askori hauxe gertatu zaigula Erramon Astibiarekin ere. Fanderiko fraile kaputxino-aren olerkiak Tomas Elduaienen eskutik 1935ean, *Olerkiak* izenburuarekin argitaratu ziren arren, hain eskura izan ez dugulako edo, ezezaguna izan zaigu askori gure

idazlearen lana. Orain ordea, euskaraz zein erdaraz publikatutako lan guztiak ezagutze-ko, irakurtzeko eta, zenbaitetan, dastatzeko aukera izango dugu hemendik aurrera.

Aipa dezagun, Jose Ramon Gregorio Astibia Errenterian jaio zela 1881ean eta Tuteran hil 1916an. Hogeita hamabost urte baino ez zituen, beraz, zendu zenean. Garai hartan gertatu ohi zen legez, gure aita kaputxinoak egunkari eta aldizkarietan argitaratu ohi zituen bere olerki, artikulua eta hainbat eliz kantaren hitzak. *Euzkadi*, *El Día*, egunkarietan, *Euskal Esnalea*-n, *Gipuzko-arran*, eta abar. Astibia-ek ere zenbaitetan bere lanak izenpetzerakoan izengoitiak era-



biltzen zituen, hara nola: Gabiola, Sarbide, Arrobi'tar Danel, Argitzale eta abar.

Han-hemen, sakabanatuak zeuden lanak bildu eta gero, orain, besteak beste, Elixabete Pérez Gazteluri eta Olatz Elustondori esker, lan osatu bikaina dugu gure eskuetan. Izan ere, hitzaurre mamitsuaz gain, Errenderi Abaren lanak ezezik, Errenderi Abaren gaineko lanak ere bildu dituzte bibliografia eguneratuarekin batera. Eranskin gisa, Erramon Astibia eginiko hainbat lanen partitura eta letrak ezagutzeko aukera izango du irakurleak.

Elixabete Pérez Gazteluk hitzaurrean dioen bezala, gordeak zeuden lanak bilduz eta azalduz datozkigu lan honen prestatzaileak. Garai batean Joseba Lersundik, Josetxo Fernandezek, Xabier Olaskoagak eta Joseba Goñik saio bat egin zuten Astibiaren lanak berrargitaratzeko asmotan. Aita Onaindia karmeldarrarena jo zuten, lanak argitaratzeko moduan zeuden arren, ez zuten helmugara iristerik izan. Oraingoan, ordean, ezagutzen diren guztiak, olerki zein hitz lauz idatzitakoak, esku-eskura dauzkagu.

Eskertzekoa da lan honen egileen eta laguntzaileen lana. Azpimarratzekoa, infor-

matikazko euskarriari esker, lan hau erabiltzeko eskaintzen diren erraztasunak. Bate-tik, aurkibidean interesatzen zaigun puntuan klik egin eta zuzenean guk hautatutako lanaren aurrean jartzen gaituelako. Bestetik, esanguratsuak izan daitezkeen hitzak, urdin kolorez bereziak agertzen dira, gaiarekin lotuak daudelako. Eroso sentitzen da norbera CDa ordenagailuan sartu eta arakatzeari ekiten zaionean.

Errenderi Aba XX. mendearen hasierako lekukoa da. Gaiari nahiz idazteko erari dagokionez, testuinguru horretan kokatu beharreko idazlea. Gogoan hartu Sabino Arana 1903an hil zela, eta "Jaungoikoa eta Lege Zarra" lemaren pean ereindako abertzaletasuna zabalduz joan zela. Astibia Astarloaren, Arrandiagaren eta, batez ere, Sabino Aranaren iturriak maiteak zituen.

Amaitzeko, aitor dezadan, hitzaurreko argibideak, lanaren egiturak, informatikaren antolaketak, eranskinen atalak Erramon Astibia aurkitzeko eta ezagutzeko aukera eman didatela. Eskerrik asko egileei eta, nola ez?, babesle izan den Errenteriako Udalari.